



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

**2021KO AZAROAREN 25ean EGINDAKO
EZOHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

Olaberrian, 2021eko azaroaren 25ean, arratsaldeko 18:00ak izanik Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira alkatea den Jokin Garmendia Asurabarrena, Nerea Castaño Irazola (O.E.O), Maider Agirre Mugika (O.E.O), Elixabet Canales Segurola (O.E.O), Irene Irastorza Asurabarrena (O.E.O), Aitor Urkiola Ugartemendia (EH-BILDU) eta Pedro José Jauregui García (EH-BILDU) zinegotziak.

Bertan dago eta fede ematen du Iñaki Alonso Antolin Idazkari Kontu-hartzaileak.

Osoko Bilkura legez osatzeko beharrezkoa den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztatu ondoren, Udalbatzak gai-zerrendako gaia bakarraren aztertzeari ekin dio.

“Olargi Olaberriko Oroimen Historikoa”k aurkeztutako “1936 altxamendu frankistaren gaitzespena” aitorpenaren onarpena, hala badagokio.

Irene Irastorza zinegotziak adierazpen hau irakurri du, eta honela dio hitzez hitz:

**ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO
CELEBRADO EL 25 DE NOVIEMBRE DE
2021.**

En Olaberria, a 25 de noviembre de 2021, siendo las 18:00 horas se han reunido en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el alcalde, Jokin Garmendia Asurabarrena y I@s concejales, Nerea Castaño Irazola (O.E.O), Maider Agirre Mugika (O.E.O), Elixabet Canales Segurola (O.E.O), Irene Irastorza Asurabarrena (O.E.O), Aitor Urkiola Ugartemendia (EH-BILDU) y Pedro José Jauregui García (EH-BILDU).

Asiste y da fe del acto el Secretario-Interventor Iñaki Alonso Antolin.

Comprobado que asiste el número suficiente de concejales para la válida constitución de la Sesión Plenaria se pasa a estudiar el único asunto del orden del día.

Aprobación, si procede, de la Declaración denominada “1936 altxamendu frankistaren gaitzespena”, presentada por “Olargi Olaberriko Oroimen Historikoa”.

La concejal Irene Irastorza da lectura a esta declaración, cuyo tenor literal es el siguiente:

1936ko altxamendu frankistaren gaitzespena

Olargi, Olaberriko Oroimen Historikoa taldearen helburu nagusia 1936ko Gerra Zibilean eta ondorengo frankismo urteetan Olaberrian gertatutakoa argitzea da.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

Aurten, 85 urte bete ditu 1936ko uztailaren 18ko altxamendu frankistak. Altxamendua 1931ko apirilaren 14an demokratikoki eratutako II. Errepublikaren aurka, eta ondoren 1936ko otsailaren 16ko hauteskunde orokorren bidez berretsitako II. Errepublikaren garaipenaren aurka egin zen. Altxamendu faxistaren helburua ideologi nazional-katolikoaren eta erregimenaren aurka zeuden pertsona guztien desagertaraztea zen.

Gerrak eta gerra osteko berrogei urteko diktadura gogorak, milaka emakume eta gizonen oinarrizko eskubideen urraketa ekarri zuen: Gizateriaren kontrako krimenen artean, desagertuak, fusilatuak, exekutatuak; erbestean, espetxean, konzentrazio esparruetan egon zirenak; esklabutza, torturak jasan zituztenak, errepresio amaigabeen bizi izan zirenak; isunak, kultura eta hizkutzaren debekuak eta jazarpenak sufritu zituztenak...

Orain arte biktima guzti hauek ahaztuak izan dira. Ahotsik gabe, justizia erreparaziorik gabe utzi dituzte. Eta beraien sufrimenduaren eta injustiziaren arduradunak ere, ez dira ez ikertuak, ez zigortuak izan.

1936ko gerran Olaberrian ere fusilatuak, zein herritik kanpo edo demokrazia eta askatasunaren alde borrokatu zutenak ere izan genituen; Olaberritarrak demokratikoki hauteskundeetan aukeratutako udalbatza, frankistek desegin zuten, orduko alkatea zen Joxe Mari Galparsoro Agirre eta baita Martin Joakin Asurabarrena Zubiarrain, Joxe Joakin Lasa Zeberio eta Joxe Insausti Etxeberria zinegotziak ere kargutik kendu zituzten, ikertu, Erantzunkizun Politikoaren Tribunalak epaitu eta isun ekonomikoak ordaintzera behartu zituzten.

Bestalde, biktima zuzenak izan ziren Olaberriko emakumeen errealitate gordin ezkutatuak ere hor dugu.

Guztiak gogora ekarri nahi ditugu. Iragana kontutan hartu gabe eraiki bait da demokrazia eta hori ez da onargarria.

Horrez gain, Olaberriko Udalak 1949. urteko abuztuaren 21ko ohiko udalbatzan, Francisco Franco Bahamonde diktadorea Udalerriko Ohorezko Alkate izendatu zuen aho batez. Eskubide demokratikoak babesteagatik erahil, zapaldu, baztertu edo espetxeratu zituzten guztien oroimena berreskuratzeagatik, Francisco Franco Bahamonde diktadoreari Ohorezko Alkate izendapena kentzea beharrezkoa ikusten dugu

Gizarte guztiaren ardura da herritar guztien eskubideak babestea, erakundeetatik hasita. Gure kasuan Olaberriko Udala da herritarrengandik gertuen dagoen erakundea eta,



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

horregatik guztiagatik, Udal honek honako ebazpen hau onartu dezan eskatzen dugu azaroko Osoko Batzarrean:

- Udal honek 1936ko uztailaren 18ko altxamendua gaitzesten du, baita 1936ko gerra eta ondorengo erregimen frankista diktatoriala ere.*
- Udal honek 1936ko abuztuaren 9an Jesús Bujanda Martínez eta urte bereko abuztuaren 25n Martzelo Lasa Zeberio herritarren fusilamenduak gaitzesten ditu.*
- Udal honek diktadura frankistaren biktimei, egia, justizia eta erreparazioa zor zaiela aitortzen du.*
- Udal honek diktadura frankistaren biktimak eta senitartekoak babesten ditu, beraien memoria iraun arazten du eta erregimen frankistaren oroimenezko inolako adierazpenik eta legitimaziorik ez izatea ziurtatzen du.*
- Udal honek Olaberrian diktadura frankistak eragindako giza eskubideen urraketa guztiak ikertu eta dokumentatzeko, testigantzak eta frogak bilduz ahalik eta zerrenda osatuena landu dadin konpromezua hartzen du. Konpromezua era berean, biktimen zerrenda, sufritutako delituak eta ondorioak publiko egiteko, erantzule zuzenak eta zeharkakoak nortzuk izan ziren jakinaraziz.*
- Udal honek Francisco Franco Bahamonde diktadoreari Ohorezko Alkate izendapena kentzen dio, 1949ko abuztuaren 21ko udalbatzaren akordioa balio gabe utziz.*
- Udal honek uztailak 18a. “Olaberriko Oroimen historikoaren eguna” izendatzen du, egun horretan udaletxe kanpokaldean Ikurrina masta erdira jartzeko konpromezua hartzen du dolu adierazpen gisa.*
- Udal honek aurrez aipatutako guztia herritarrei jakinarazteko konpromezua hartzen du.*



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

Olaberrian, 2021 azaroaren 8an.

Aitorpena ikusita eta bozketa egin ondoren, aho batez onartu da.

Segidan, Alkateak proposatuta, minutu bateko isilunea egin da biktimen omenez.

Jarraian, Aitor Urkiloak zinegotziak hurrengo aipatzen du:

En vista de la misma y tras efectuar la votación, este acta resulta aprobada por unanimidad.

Seguidamente y a propuesta del Alcalde se guarda un minuto de silencio en memoria de las víctimas.

A continuación, el concejal Aitor Urkiola manifiesta lo siguiente:

EH Bilduren irakurketa “1936 altxamendu frankistaren” harira

Aipamen berezia egin nahi dugu aste honetan gure artetik joan den, Aranguren azpi baserriko Jose Mari Lasa Iparragirre. 1936an zer gertatu zen testigantzak jasotzen ari den honetan, bere etxeko ateak ireki, herrian gertatutako testigantzak azaldu eta sentimendu guztiarekin kontatu dizkigulako. Joan zara baina zuk emandakoa hemen geratzen da. Bekizu arina lurra Jose Mari.

OLABERRIKO MEMORIA. EGIA OSOA ETA ERREALA.

Lehen lehenik gaur gure hitzak Olargi taldearentzat. Testigantzak, datuak eta argazkiak, eman dituzten herritarrei ere. Hainbat urtez hainbat herritan lanean aritu eta ari diren talde, eragile eta memoria elkarteei, musutruk askotan, instituzio ezberdinen inongo laguntzarik gabe, orain 85 urte hasita gertatu zen guztia argitzen egindako lanagatik. Handia egiten ari zarete. Euskaldunak txarrak izan ohi omen gara gure sentimenduak adierazten. Gaurkoan ozen diogu. Milesker, bihotzez, Olaberriko Olargi memoria taldeari. 3.634 pertsonako masa bat garbitu zuten Nafarroa Garaian kolpistek, Araban 400, Gipuzkoan 1.100 eta Bizkaian 1.000. 1938ko apirilean Eusko Jaurlaritzak eman zuen datua hauxe zen. 38.000 haur euskaldun bizi ziren deserrian. Kasu askotan familia osoak izan dira afusilatutak, tartean haurrak.

- Lodosako Molinet sendia.
- Goñi-Sagardi sendia Gaztelun. Nafarroan.
- “El pueblo de las viudas”. Sartaguda herria, 1200 biztanletatik 86 herritar hil zituzten. Horien artean alkatea eta 5 zinegotzi.

Orain arte biktima guzti hauetatik ez da bat ere izan justiziagatik erreparatua, ezta hainbeste min eta laztura eragin zuten erantzule bakar bat ere, ez da tribunal edo epaitegi baten aurrean egon.

Ez dagokie biktimei, bere senitartekoei edo taldeei bakarrik. Gizarte guztiari dagokio herritar guztien eskubideak eta interesak babestea, eta batez ere bere instituzio hurbilenei, Udaletxeari hain zuzen, egokien baitaude biktimen egoera ezagutzeko.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

Pauso bat aurrera egiteko gure prestutasunarekin, udal honi eta herriari ondorengo eskaera luzatzen diogu:

1.- Argentinan hiriburu den Buenos Aireseko Epaitegi Nazionaleko Kriminal eta Zentzategi Federalaren 1 aretoan kereila kriminal bat jartzea Epaitegi horrek irekita duen 4591/10 Auziaren barnean, gure Udalerrian diktadura frankistak eragindako gizateriaren aurkako krimen guztiak iker ditzan, zein baldintzatan egin ziren zehaztuaz, nortzuk izan ziren erantzule zuzenak eta zeharkakoak jakinaz, eta, kasuan, beraien egozte, auzipetze, epaiketa eta zigorra jartzeko erabakia hartuaz.

2.- Gure herriko edo eskualdeko Epaitegian kereila kriminal bat jarri, Udalerrian diktadura frankistak eragindako gizateriaren aurkako krimen guztiak iker ditzan.

Hauek dira jadanik bere kereilak jarri dituzten udal batzuk: Arrasate, Bergara, Eibar, Andoain, Elgeta, Gernika, Balmaseda, Berriz, Gasteiz, Miranda de Ebro, Iruñea...

Martin Ugalde idazleak horrela gogoratzen zuen garaia. " Goseaz hitz egiten genuen, beti gosez..."

Txikitatik entzuten zer izan behar garen, indarrez inposatuz zer maitatu behar den. Dio kantuak. Euskaldun agertzea ez bait da josteta, idatziko zuen Xalbadorrek.

Eta herriko emakumeei titi puntak erre zizkieten, bortxatu, mingainak josi eta ipurzuloak burdinez lehertu. Ilea erabat moztu eta herriko plazan denen erakusgarri jarri. Ostikoz bota digute atea, zein dira deitu gabe datozenak. Aitaren aurrean Maravillas Lamberto larragako 14 urteko Larrosa hainbat aldiz bortxatu ondoren, aita fusilatu zuten eta gero alaba. Euskeraz hitzegitera debekatu eta isunak jarri... etxetik bota eta ondasun guztiak lapurtu. Oroitzen zaitudanean sukaldean egoten zara eta guri begira bi guardia, semea bilatzen eta etxea suntsitzen. Zaplastekoka, zirti-zarta! Aurpegi masailetan bota zuten lurrera AMA!! Eta berriz min hau. Emaidazu eskua ta gertatu zeneko lekura eramango zaitut.

Eta itsasontzi baten Euskal Herritik kanpora garamatzatela ez dakit nora? Oi ama Euskal Herri goxua. Agur Xiberoa, adios gaixo etxe ondoa kantatzen genuen.

Gernikako arbola izan zen bonbardeatua euskaldunen artean guztiz maitatua eta Gernikako hondakinen artetik eraman zuten Estepan Urkiaga "Lauaxeta"... "Goiz eder hontan erahil behar nabe" tabako pakete batean idatziko zuen ziegan fusilatua izatera atera aurretik. Azken oihua: Dana emon behar jako maite dan askatasunari...

Halare maite ditut maite gure bazterrak...



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

Oi gu hemen bidean galduak
ibiltzeari utzi gabe
esan zuen Txirritak
Larrosa baino ederragoko
gure zazpi probintziyak
lau Españan preso daudenak
hiru han ditu Frantziyak

Agian, ekibokatu ginen hasieran bertan mundu hontara euskaldun sortzean, halare gaur hemen gaude laurogeitabost urte ta ondoren, bost menderen ondoren hemen gaude. Hemen gaude eta Manu Chaok zioen: Próxima estación, Esperanza.

Mendien artean Herri bat gara, Joaldun, martxoak hiruan, martxoak zortzian, Uztailak hemezortzian, abuztuaren bederatzian eta Hogeitabostean, azaroak hogeian, abenduak hiruan...

Aire bat, arnas bat, memori bat, konpromezu bat, transmisio bat, sentimendu bat. Odolaren mintzoa eduki gordea, badakit hori baina ezin dut ordea idatziko zuen Xalbadorrek. Ahoz-ahoz, ura harri artean bezala iritsi gara belaunaldiz-belaunaldi. Herri bat gara, inor eta inoiz ixildu ez duena. Haien ametsa gurea ere badelako, haien melodia abesten jarraitzen dugu.

Agian, agian, egün batez jeikiko ginela esan zenigun Matalaz. Eta gaur hemen Olaberrin, urte eta mende askoren ondoren hemen gaude herri honi esanaz zer gertatu zen. Gu ez gara gerrazaleak. Gerra egitera beraiek etorri ziren. Egia osoa jakitea nahi dugu. Beste mundu juxtuago bat posible da. Baita ixildu nahi izan gaituztenentzat ere. Hemen gaude esku bat luzatuz, irrifar bat zabalduz Lau haizetara! Irri eginez Lau haizetara !

GORA HERRIA!



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

Azkenik, "Olargi Olaberriko Oroimen Historikoa" elkarteko ordezkari batek eskerrak eman dizkio Udalbatzari adierazpen hau aztertu eta onartzeagatik.

Eta aztertzeko beste gairik egon gabe, Alkate jaunak bukatutzat ematen du bilkura 18:20ak direnean, eta nik, Udalbatzako Idazkariak, adierazitako guztiaren Akta egiten du.

ALKATEA / EL ALCALDE

Por último una representante de la asociación "Olargi Olaberriko Oroimen Historikoa" da las gracias al Ayuntamiento Pleno por haber tratado y aprobado esta declaración.

Y sin más asuntos por tratar, el Sr. Alcalde da por terminada la sesión cuando son las 18 horas y 20 minutos, y yo, Secretario de la Corporación, expido el Acta de todo lo manifestado.

IDAZKARIA / EL SECRETARIO



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA